

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresaren xede-bezeroa kirol inklusiboa praktikatzeko ekipamendu egokitua behar duten pertsonak dira. Honen barruan kirol jarduerak egiteko ekipamendu espezializatua behar duten aniztasun funtzionala edo muga fisikoak dituzten pertsonak sartzen dira, baita kirolean sartzeari sustatu nahi duten erakundeak, ikastetxe edo kirol klubak ere.

Bezeroen segmentuak:

1. Aniztasun funtzionala duten pertsonak:

Muga fisiko edo funtzionalak izan arren kirola egiten jarraitu nahi duten pertsonak. Beraien gaitasun espezifikoetara egokitzen den kirol-ekipamendu egokitua eta segurtasuna eta erosotasuna bermatzea bilatzen dute, askotan arreta pertsonalizatua eskatuz.

2. Familiak edo zaintzaileak:

Aniztasun funtzionala duten pertsonen guraso, senitarteko edo zaintzaileak, euren seme-alabek edo gertukoek kirola egin dezaten aukerak bilatzen dituzte. Hauei informazio argia eman eta hautaketa-prozesuan lagundu behar zaie.

3. Kirol erakunde inklusiboa:

Kirol inklusiboak sustatzen dituzten kirol klubak, ikastolak, elkarteak edo taldeak dira. Erabiltzaile taldeei egokitutako kirol-ekipamendurako sarbidea, baita kirolarien profil ezberdinetara egokitzen den ekipamendurako aholkularitza ere bilatzen dute.

4. Hezkuntza eta errehabilitazio erakundeak:

Hezkuntza edo jarduera terapeutikoetarako ekipamendu egokitua behar duten ikastetxeak, errehabilitazio zentroak eta inklusio programak dira. Neurria egindako irtenbideak eta hainbat material aldi berean alokatzeko aukera jarduera desberdinak estaltzea bilatzen dute.

5. Ekitaldi edo lehiaketa inklusiboak:

Parte-hartzaileentzako aldi baterako egokitutako materiala behar duten kirol ekitaldi inklusiboen antolatzaileak dira. Alokairu aukerak epe mugatuetaarako eta materialaren hornikuntza aniztasuna bilatzen dute.

Segmentuen arteko bereizketa:

Bezero banakoek ikuspegi pertsonalizatua behar dute alokatutako materiala euren behar zehatzetara ezin hobeto egokitzen dela ziurtatzeko. Bestalde, bezero kolektiboek (erakundeak, eskolak, ekitaldiak) material generalagoa eta kantitate handiagoan eskatzen dute.